

JARDUERAK

TragOk edalontzi adimenduna sortu dugu gazteen eta emakumeen segurtasuna bermatzeko, batez ere jai giroan, non substantziak ezkutuan edalontzietan sartzea ohiko arazoa izan daitekeen. Produktua chip eta sentsore kimikoekin hornituta dago, eta substantzia kaltegarriak gehitzen direnean berehala ohartzen da, horrela erabiltzaileek edaria modu seguruan kontsumitu ahal izateko. Edalontziak plastiko birziklatuz egiten dira, berrerabilgarriak eta jasangarriak izateko, ingurumenarekiko konpromisoa mantenduz. Helburua ez da soilik segurtasuna handitzea, baizik eta jai giroa arduratsua eta lasaiagoa bihurtzea, non denek segurtasunez gozatu dezaketen eta komunitatea sustatzen den.

TragOk-en funtsezko jarduera nagusiak lehenik eta behin ekoizpena da. Hau edalontziak diseinatzea, material egokiak aukeratzea, chipak eta sentsoreak montatzea, kalitate-kontrolak egitea eta produktuak bezeroei helaraztea barne hartzen ditu. Festa amaitutakoan, edalontziak bueltatzen dira, berriro alokatzeko edo garbiketa eta mantentze lanetarako, horrela berrerabilpena eta iraunkortasuna bermatuz. Modu honetan, edalontzia erabiltzearen ardura handitzen da eta festa modu arduratsuan gozatzen da.

Hurrengoa, arazoak konpontzea da, oso garrantzitsua. Bezero batek edalontzia erabiltzean arazo bat badu, gure taldeak berehala jarduko luke: softwarea eguneratzen da, chipak ondo funtzionatzen ez badu ordezkoiak ematen dira eta erabiltzaileei laguntza eta aholkuak ematen zaizkie. Adibidez, festetan edalontzia erabiltzen duen gazte batek arazoren bat izango balu, gure langileak berehala hurbilduko litzateke eta edaria ordezkatzeko edo arazoa konpontzeko laguntza eskainiko genuke. Horrela, segurtasuna eta konfiantza handitzen da, eta gazteek produktuarekin harreman positiboa dute.

Azkenik, plataformako eta sareko jarduerak ezinbestekoak dira. Produktua digitalki konektatuta dago, eta horrek softwarea eta aplikazioa kudeatzea eta mantentzea eskatzen du, alertak eta datuak modu eraginkorrean erabiltzailearengana iristeko. Era berean, webguneak eta sare sozialak erabiltzen dira marka ezagutarazteko eta edalontziaren funtzionalitatea azaltzeko. Adibidez, festibal batean gure stand-en, langileek edalontzia erakusten dute eta aplikazioa nola funtzionatzen duen azaltzen dute, gazteei nola zaindu dezaketen edaria erakusteko. Halaber, produktuak modu digitalean sustatzen dira, etorkizunean edalontzi berriak eta hobekuntzak aurkeztuz.

Laburbilduz, funtsezko jarduera hauek guztiak laguntzen digute gure balio-proposamena eskaintzen, bezeroengana iristen, harreman eraginkorra izaten eta diru-sarrerak sortzen. *TragOk* ez da soilik edalontzi bat; esperientzia bat da, jai giroa seguru, arduratsua eta jasangarria bihurtzen duena, gazteen eta emakumeen babesa bermatuz eta ingurumenarekiko errespetua mantenduz. Adibidez, jaietan parte hartzen duten gazteek edalontzia erabiliz, edaria modu seguruagoan kontsumitzen dute, eta aldi berean edalontziak berrerabiltzen dituzte, ingurumenaren alde ekarpena eginez.